

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**94/2018 Mozioa, abenduaren 19koa, Frankismoaren Arabako Biktimen Bulegoak egindako lanean oinarrituta, gizateriaren aurkako krimenengatik kereila bat aurkezteari buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko abenduaren 19an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

94/2018 Mozioa, abenduaren 19koa, Frankismoaren Arabako Biktimen Bulegoak egindako lanean oinarrituta, gizateriaren aurkako krimenengatik kereila bat aurkezteari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote transkribatu ditzala Arabako Frankismoaren Biktimei Arreta emateko Bulegoan jasotako testigantza guztiak, hala, beste ikerketa batzuen datuekin batera, Frankismoaren Biktimei buruzko EHUren txostena burutu dezan.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, Batzar Nagusietako zerbitzu juridikoekin lankidetzan arituz, hasi ditzala 2019ko martxoaren 31 baino lehen Gasteizko epaitegietan gizateriaren aurkako krimenengatik kereila bat aurkezteko lanak.

3. Arabako Batzar Nagusiek konpromisoa hartzen dute babesa agertzeko Araban diktadura frankistan egindako krimenen ardurak zehazte aldera, Justizia Administrazioaren aurrean prozedurak hasteko herritarrek bultzatutako ekimenei.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete prozedurak hasi ditzala frankismoaren biktimen errolda guztiak bateratze aldera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 19a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**